

Ikastolen Elkarteko lehendakaria hautatu dute Enaiko zuzendari

Euskararen Instituturako Xabier Azanzaren soslai teknikoa lehenetsi du Perez-Nievas kontseilariak

ALBERTO BARANDIARAN
Iruñea

Euskararen Nafar Instituturako (Enai) «kulturaren arloko erreferente ezaguna» nahi zuen Carlos Perez-Nievas Hezkuntza kontseilariak, baina soslai hori betetzen zuen inoren baiezkioa lortu ez, eta kudeaketan eta giza baliabideetan aditu Xabier Azanza hautatu du, azkenean, euskararen hizkuntza politikaren buru.

Zuzendariaren soslaia izan da, hain zuzen ere, traba nagusia. Duela bi aste, prentsaren bidez zabaldu zen Mikel Aranburu zela zuzendaritzarako aukeratua, Aranburuk berak horrela baieztatuta, baina, egun berean, Perez-Nievasek gezurtatu egin zuen berria, eta ondoreza agertu zuen «prentsaren presioari aurre egiteko» Aranburuk izandako ustezko ahultasuna zela eta. «Duela egun batzuk soslaia zein zen erabaki genuen», esan zuen kontseilariak atzo, Azanzaren izendapenaren berri jakinarazteko emandako prentsaurrekoan. «Orduan ohartu nintzen kulturako jendeak arazo handiagoak izaten dituela soslai politikoko gaiekin borrokatzeko, eta kudeaketa

arlo hori menperatuko zuen norbait hautatzea erabaki genuen». Xabier Azanza Nafarroako Ikastolen Elkarteko lehendakaria izan da 2002tik, eta 2000. urtetik giza baliabideen zuzendaria izan da Mondragon Korporazio Kooperatiboaren barruan dagoen Jangarria SL enpresan.

«GORABEHERA ASKOKO IZENDAPENA». Izendapenaren bidez, Institutua-

«Legean aldaketak egiteko adostasuna behar dugu, ea legeintzaldiaren amaieran lortzen dugun»

CARLOS PEREZ-NIEVAS
HEZKUNTZA KONTSEILARIA

ren beraren sorrera ilundu duen aferak bukatutzat eman nahi izan zuen kontseilariak, nahiz eta kultura arloko inor lortu ez izana porrotatzat har daitekeen. «Gorabehera askoko erabakia izan da, bai», onartu zuen, «eta erabakia atzerapenez dator, baina uste genuen baino zailagoa izan da».

Mahai gainean «hamar-hamabi» izen izan dituela aitortu zuen Perez-Nievasek, gehienak irakas-kuntzarekin lotuak, eta izendapenak «zailtasunak» ekarriko dizkiola esan zuen, zergatiak argitu gabe. «Zailtasunak ez dira Gobernutik etorriko, inork ez duelako trabarik jarri, mutur batean eta bestean daudenengandik baizik. Baina hori onartu behar da».

Enaiko zuzendariaren lehen egin beharra Iruñerriko ikerketa soziolinguistikoa egitea izango dela aurreratu zuen kontseilariak, Noain, Elortzibar, Aranguren edo Beriainera Deredua zabaldu behar den erabakitzeko, eta Euskararen Legearen balizko aldaketari ez zizkion ate guztiak itxi. «Edozein aldaketak Parlamentuko taldeen adostasuna behar du, eta oraintxe bertan hori ez dago. Horretarako lan egin behar dugu, ea legeintzaldi honen bukaera egoera desberdina dugun eta politikoki lortzen dugun hori aldatzea».

Era berean, orain arteko hizkuntza politikan aldaketak egongo direla azpimarratu zuen Perez-Nievasek, eta Euskalerria Irratiaren kasua aipatu zuen. «Gogorazazi nahi dut Parlamentuak onartu duela mozio bat, Espainiako Gobernuari eskatzeko hurrengo leizentziak emateko orduan euskarazko irrati batentzako aukera egon dadin. Hori da gure helburua. Gurea, eta gobernuarena».

XABIER AZANZA Enaiko zuzendari kudeatzailea

«Udalekin eta komunikabideekin gehiago lan egin behar dugu»

A. B.
Iruñea

Ziraukikoa sentitzen dela azpimarratu du Xabier Azanzak (Bilbo, 1964), ezer baino lehen, horkoak dituelako ama eta seme-alabak. Erroka berriaren inguruan «kezkak eta pozik» dago, eta ehun eguneko menia eskatu du. «Hiru hilabete horiek behar ditut Enai ezagutzeko. Orduan hasiko gara proiektuekin lanean».

Zein izango dira Enaiko zuzendari-kudeatzailearen lehen urratsak?
Enairen foru dekretuan eginbide batzuk agertzen dira, horietako bat ikerketa soziolinguistikoa egitea, ikusteko Iruñerrian zer eskakizun dauden euskarazko irakas-kuntzari dagokionez. Egin beharreko lehen lana hori da.

Hizkuntza politikan aldaketa sakonen premia ikusten duzu?

Aldaketa sakonik ez da egongo; hori garbi egon da hasieratik. Euskararen Legearekin ibili behar dugu. Baina hori aitortuta, esan behar dugu aukerak badaudela legearen barruan lana egiteko.

Baina egitasmoa zein izango da? Zonifikazioa, komunikabideak, administrazioan... zein izango dira ardatzak?

Lehen hilabeteetan, Enairi eta hor egongo garenok dagokigu egoera aztertzea eta, lasaitasunez, ikustea zer urrats egin behar diren. Orain, horixe egin behar dugu. Ge-

ro, epe labur edo ertainera begira pentsatzen hasi behar dugu.

Zergatik onartu duzu lanpostu hau?

Euskara maite dut; ez da nire ama hizkuntza izan, baina maite dut, eta nire seme-alaben heziketa euskaraz izan da. Institutuaren inguruan kontseilariaren azalpenak entzun nituenean, euskara despolitizatu egin behar zela, gure ondarea zela, nire gustuko hitzak izan ziren. Horrek bultzatu nau lanpostu hau onartzera.

Ikastoletatik etorrita, zure izendapenak ikastolen arazo batzuk, eta egoera orokorrean, konpontzeko balio lezakeela iruditzen zaizu?

Eskarmentua eduki dut, egia da, ikastoletako lehendakaria izan naizelako zazpi urtez. Baina sartu nintzenean ikastola batzuk legeztatuta gabe zeuden, eta gaur egun normalizatu egin da egoera. Gaur egun, harremanak normalak dira Nafarroako Gobernuarekin. Eta uste dut euskararen munduan ara-

«Euskara konfrontaziotik atera behar du Institutuak; batzeko tresna izatea lortu behar du»

«Aurrekontu handiagoa izatea gustatuko litzaidake, baina hori zuzendari guztiei gertatzen zaie»



JACOBA MANTEROLA / ARCAZHI PRESS

zoak egon badaudela, eta horiek konpondu egin behar direla. Eta konpondu egingo dira.

Ikastolen inguruko jendeak nola hartuko du zure erabakia?

Haiei galdetu beharko zaie. Ez dut uste Institutuak denon laguntza lortuko duela. Beti egongo da gutxiengo bat, bultzatzeko prest egongo ez dena. Denetarik dago, baina uste dut orokorrean jendeak ondo hartuko duela. Orain arte ikastoletako munduaren deiak, behintzat, animozko deiak izan dira. Gogoratu behar dugu Enai oraintxe sortu dela eta ez duela lan erraza izango. Euskara ez da izan denok batzeko gaia; elkarren aurrez aurre jartzeko erabili izan da. Euskara konfrontaziotik atera behar du Institutuak, batzeko tresna bilakatu behar du. Ez da erraza izango, baina teknikariek eta gizariek daukagun babesarekin, uste dut lortuko dugula.

Aurrekontuen aurreproiekturako zenbakia aurkeztu dira. Instituturako eta, ondorioz, euskararentzako diru sailetan igoera badago, baina garbi dago igoera ez dela nahikoa. Zer iritziz duzu?

Normala den bezala, diru gehiago edukitzea gustatuko litzaidake. Baina zuzendari guztiei gertatzen zaie. Ez dut aurreproiektua sakon aztertu. Orain Parlamentuan zuzenketak eztabaidatu dira, baina, nolahi den, zaila ikusten dut gehiago lortzea.

Kontseiluak dio aurrekontu hauekin ez dela lortuko normalizazioa.

Pixkanaka ibili behar dugu, eta espero dut urtetik urtera gero eta diru gehiago izatea.

Arloren bat bereziki landu edo jorratu beharkeko ikusi duzu?

Udalekin gehiago lan egin behar dugula badakigu. Komunikabideekin ere bai. Diru sail batzuk, esaterako materialgintza, fonoteka, liburutegia, Internet... horiei lana

eta ahalegina dedikatu behar dugu, orain arte egin den baino gehiago.

Beste euskal lurraldeetako harremanak nolakoak izango dira?

Argi dago non hitz egiten den euskaraz, eta Euskal Autonomia Erkidegokoekin eta Iparraldekoekin harremanak eduki behar ditugu, euskaraz hor hitz egiten delako. Ez da gure lehentasuna, baina harreman normala izango dugu haiekin.

Normaltasuna da etengabe aipatzen duen hitza. Hainbat eragilerentzat, jarra aldaketa badagoela sinesten hasteko, nahikoa litzateke aurretik egindako atzerakada edo okerrak zuzenduko balira.

Guk badakigu esparrua zein den, baina ahal duguna egingo dugu. Nolanahi ere, argi eta garbi dugu aurrera egin behar dugula eta gero eta gauza gehiago egin behar ditugula.